

BASERRI INGURUNEAREN DEFENTSA, GIZARTE OSOAREN EGITEKOA

Virgilio, poeta latinoaren bertso famatu batzutan esaten da baserritarrak egiatan zoriontsuak izan litezkeela baldin eta haien ondasunaz konturatuko balira (O fortunatos, nimium, sua, si bona norint, Agricolas). Gure artean hitz horiek ez dute, alabaina, gaurkotasun handirik. Joan ziren joan Virgilioren garaiak, eta iragan denbora ez da itzultzen.

Nekazaritzaren krisialdia

Gaur egun sekula ez bezalako krisialdi sakona pairatzen ari da nekazal sektorea, eguneroko komunikabideetan horretazko zerbait irakurtzen edo entzuten ahal dugularik. Zenbaitek uste du, gainera, sektore hori salbatzeko egiten ari diren eskaera, ahalegin, proposamen eta plenteamendu guzti-guztiek itsaso zabalean isuritako ur baldearen etorkizun berbera dutela, eta berehala aipatzen zaigu Ipar Amerikako Estatu Batuetako kasua. Bertan, nekazal populazioa, populazio aktibo osoaren ehuneko batera baizik ez da iristen; eta ehuneko bat horrek ekoizpen nahikoa sortzen du barne kontsumorako zein esportaziorako.

Ezinbestekotzat jotzen da eredu horretarantz abiatu behar dugula; beraz, nahitaezko omen da ere geure nekazaritza tradizionalaren hondamendia. Galdera da ea eredua benetan



horixe ote den. Batzuk ezetz erantzunen dugu beti. Esan dezagun, bidenabar, eredu horixe dela hirugarren mundu deiturikoan dagoen gosearen erantzule nagusietariko bat, beste hamaika logikarik gabeko deskalabru ez aipatzearren. Motiborik ez da falta, honenbestez, mundu «zibilizatuaren» nekazaritza ereduari uko egiteko.

Zernahi gisaz ere, botere ekonomiko trasnazionalak bere eredu hura inposatu nahi du, haren kontra borrokatzea benetan zaila delarik. Horrexegatik diogu geure nekazaritza krisialdi larrian dagoela, hain zuzen ere, ez bait die erantzuten botere ekonomiko handien asmoei. «Krisialdi» hitza zentzu honetan aipatzen denean, ekonomi sektore baten barneko produkzio eredu tradizional baten «desegokitasuna» dugu aipatzen; modako hitzetan, «konpetibitaterik eza» (nahiz eta konpetibitate sistema hori ezin onartuzkoa izan geure ustez).

Baserriaren beraren krisia ere

Baina baserriaren krisialdia ez da bakarrik produkzio moduari loturiko kontu hutsa, krisian dagoena askozaz gauza gehiago

bait da. Nekazaritza, produkzio sektore gisa, krisian dago, eta baserria (nekazaritza baino kontzeptu zabalago dena) ere krisian dago. Bigarrena lehenetik datorrenentz (edo alderantziz), ala biak inbrikatuak direnentz guttieneko kontua da. Ardura diguna da baserri munduaren krisiaren zabala azpimarratzea. Igerriko denez, nekazaritzaren funtzio produktiboa baino urritiago goaz oraingo honetan. Kinka larrian duguna erruraltasuna (zilegi bekigu neologismoa) bera da. Pausuz pausuko heriotzera daramatzate baserri kultura, baserri ingurunea, baserria bera.


Izan ere, Baserri ingurunea ez da bakarrik elikagaiak ekoizteko dagoen eremu bat, horretaz gain, beste eginkizun inportanteak betetzen ditu eta. Ondare etnologiko (kultura tradizionala, ohiturak,...) eta ekologiko handi baten zaintzaile dugu baserritarra. Gaurko egunetan inor gutxik ukatzen du, teoriarik bederen, gauzak hala direla, eta, esaterako, baserritarrari ordaindu behar zaiola ingurugiroaren babesle gisa egiten duen lana. Gehiago kostatzen zaigu, ordea, baserri-kulturaren iraupenaren aldeko apustu egitea. Badirudi fatalismo batetan eroriak garela, ikusiz «errural-urbano» binomioak gero eta muga galduagoak dituela gurean, gure mendebaldeko gizarte hau urbano hutsa izaterantz omen doala derrigorrean.

Hala ere, gure ustez beharrezko gauza da apustu hori egitea. Baserri munduak iraun behar du. Horrek ez du esan nahi ostrazismoan egoten kondenatu nahi dugunik; guztiz aitzitik, baserri ingurunearen garapena dugu erreibindikatzeko, baina garapen horrek ez du erakarri behar baserriaren izaeraren galera. Are gehiago, baserriaren garapen orekatu bat izanen da baserriak berak irauteko garantia bakarra.

Orokorrean hartuta, Gizarteak mundu errural baten beharra duela diogu, eta hau hainbat argiagotatik ikusten dugu Euskal Herriaren kasuan. Oraindik eraikitzen ari garen gure Herri txiki honek baserri ingurunea gal dezan uzten badugu, identitate galera partzial baina garrantzizko bati ematen diogu bide. Ez da

ahaztu behar oraindik baserria dela gure kultura eta izaeraren zati handi baten begirale edo depositarioa (Euskara bera, kasu).

Azalduriko ikuspegi zabala, hau da, baserriaren krisialdia problema ekonomiko hutsa baino zerbait gehiago delakoa, aspaldidanik dago Euskal Herriko nekazarien planteamenduetan isladaturik. Duela denbora asko zabaldu zuen EHNE, nekazal sindikatuak «NEKAZARITZA BIZI BAT BASERRI INGURUNEAN» delako leloa, euren hainbat eta hainbat ekitalditan presente egon delarik. Honekin batera, nekazal politikari buruz egin diren proposamen guztiak (kalitatearen aldeko politika bat garatu, produktibismorik eza, bertoko merkatuak irabazi beharra,.....) baserriari -eta ez bakarrik nekazaritzari- begira daude.



Plataforma errurala: Baserriaren aldeko erakunde berria


Aurrerapausu handi bat eman du orain Hego Euskal Herriko EHNE Sindikatuak. Egin berri duen II. Kongresuan onartutako txostenetarik bat «Plataforma Errurala» sortzeari buruzkoa da. Planteamendu teorikoetara ezezik, estrategia aldera eraman da «NEKAZARITZA DANON ARAZOA DA» azaldutako lema berria. Bai halaxe! Nekazaritza Gizarte osoaren problema bat den puntutik, ezin pentsa problema horri soluziobiderik eman da-

kiokenik Gizarte osoaren nola edo halako parte hartzearekin

ez baldin bada. Nekazal Erakunde Profesionalak konturatu dira eurek bakarrik ezin diotela aurre egin baserri munduaren problematikak azaltzen duen konplexutasunari. Hortik dator «Plataforma Errurala»ren ideia.

Idea honen helburua hauxe baino ez da: Gizartea kontzientziatzea nekazaritzak eta baserri inguruneak duten garrantzi estrategikoaz. Horretarako erakunde berri bat sortu beharra dago, zeinean parte hartuko bait lukete nekazaritzaz zein baserriaren arazoaz zer esanik duten kolektibo eta elkarte orok, bai eta baserri ingurunean lanean dihardutenek ere: kontsumitzaileen elkarteek, ekologistek, mendizaleek, gizarte laguntzaileek, kristau mugimenduek, sendagileek.....

Antzerako esperientziak badaude dagoeneko hainbat lekutan (Belgika, Frantzia, Erresuma Batua,...) eta Estatu espainiarrean ere sortu berri dago horrelako erakunde bat. Datozen hileetan hasiko dira Hego Euskal Herrian ideia hau gauzatzeko eta eratzeko pausu konkretuak.



«KARMEL» aldizkariaren orrialdeek aukera ona ematen digute sortzeko dagoen plataforma horren alde egin dezagun deialdi eta gonbidapena zabaltzeko. Deialdi hau Elizari eta kristau mugimenduei egin nahi diegu modu berezi batetan. Handia da gaur egun herrietako abadeek eta kristau komunitate organizatu askok baserri ingurunean duten eragina, bai eta herri txikietan egiten duten lana ere. Dударik gabe, proposatzen den bezalako elkarlan zabal hura Gizarte osoaren onerako izanen da.

Euskara aipatu dugu goiko lerroetan. Gogora etortzen zaigu euskara urbano sortzeak zer nolako garrantzi estrategikoa izan duen hizkuntza nazionalaren pausuz pausuko hondamendiari galga jartzeko. Hainbat mendetan euskararen begirale izan den baserria bera da orain laguntza eskatzen duena. Ez ote gara kapaz izango horretaz zerbait ere egiteko?

Jabier Erize